

BEZEROARENTZAKO KONTRATU AURREKO INFORMAZIOA

CAJA LABORAL, BANCASEGUROS, S.L. (aurrerantzean BITARTEKARIA) –B-75060988 identifikazio fiskaleko zenbakia du, Bilbon (Bizkaia), Kale Nagusiko 2an (48001) du helbidea- Bankaseguruko Operadore Atxikia da. Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiaren Aseguru Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezia inskribatuta dago, OV-0072 zenbakiarekin. Hala egiazta daiteke aipatutako Erregistroan –Madrilen, Paseo de la Castellana kaleko 44an (28046) du egoitza–, baita honako web-orri honetan ere: www.dgfp.meh.es.

26/2006 Legeak, Aseguru eta Berraseguruen Bitartekaritzari buruzkoak –06/07/17ko BOEn argitaratu zen–, bezeroei eman beharreko kontratu aurreko informazioaz agindutakoa betez, BITARTEKARIAK honako hau adierazten du:

- BITARTEKARIA CAJA LABORAL POPULAR, COOP. DE CRÉDITO - LAN KIDE AURREZKIA Taldeko kidea dela. Orobat, SEGUROS LAGUN ARO S.A. eta SEGUROS LAGUN ARO VIDA S.A. aseguru-konpainiak Talde horretako kideak dira.
- BITARTEKARIA atxikia dela. Hortaz, ez dago kontratuz behartuta aseguru-entitate batekin edo batzuekin soilik aseguru-bitartekaritzako jarduerak egitera, ezta aseguru-artekariei ezarritako baldintzetan aholkularitza ematera ere.
- Bezeroei emandako aholkularitzak aseguru bat kontratatzeke helburua duela, eta ez kreditu-entitateak merkatura de-zakeen beste edozein produktu kontratatzekoa.
- BITARTEKARIAK bezeroari modu argian eta ulergarrian ezagutaraziko dizkiola eskainitako aseguru-produktuak, eta kon-tratua egitean bezeroak adierazitako eskakizunak, interesak eta beharrak aintzat hartuko dituela.
- BITARTEKARIAK erantzukizun zibileko aseguru bat duela eta indarreko legediak eskatutako finantza-ahalmena duela.
- Bezeroak hala eskatzen badu, BITARTEKARIAK informazioa emango diola aseguru-produktuak eskaintzen dituzten Aseguru Entitateei buruz.
- Bezeroak BITARTEKARIAREN jarduerak eragindako kexak eta erreklamazioak egin ditzakeela dagokion aseguru-konpainiako Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean, horren helbidean. Orobat, Ekonomia Ministerioko Aseguru eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Aseguruduna eta Pentsio Planetako Parte-hartzailea Babesteko ordezkariari bidal diezaioke bezeroak erreklamazioa. Hala ere, erreklamazio hori izapidetzeko, bezeroak egiaztatu behar du Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean erreklamazioa aurkeztu duenetik bi hilabete igaro direla, eta zerbitzu horretan ez dutela erabakirik hartu, ez dutela onartu edo eskaera ezetsi egin dutela.

Jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak aseguru-kontratuak jasotzen dituen klausulen arabera erabiliko dituela dagokion aseguru-konpainiak. Ildo horretan, jakinarazten dizugu BITARTEKARIAK honako aseguru-konpainia hauekin lan egiten duela: SEGUROS LAGUN ARO, S.A., SEGUROS LAGUN ARO VIDA S.A., LA PREVISIÓN MALLORQUINA DE SEGUROS, S.A., CAJA DE SEGUROS REUNIDOS, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.-CASER-, SANITAS, S.A. de Seguros, EXPERTIA, Seguros de Decesos, S.A. eta EUROP ASSISTANCE.

Orobat, BITARTEKARIAK zure kontratuei eta zure aseguruaren indarraldiari buruzko datuak (filiazio-datuak, kontratu-eta produktu-datuak, mugaegunak etab.) erabili ahal izango ditu Entitatearen eta haren jarduera, produktu eta zerbitzuen gaineko informazioa eta publizitatea zuri bidaltzeko, baita zure beharretarako egokitutako aukera komertzialak diseinatzeko ere. Helburu horietarako behar diren datuak soil-soilik erabili ahal izango ditu. Era berean, merkataritza-jakinarazpen horiek bitarteko elektronikoen bidez (posta elektronikoen eta telefono mugikorretarako mezu laburren bidez, behintzat) bidaltzeko baimena ematen duzu.

Datuotan sartu, zuzendu, ezeztatu edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko, “Datuen Babesa” erreferentziarekin idazki bat igorri behar duzu, NANaren fotokopia eta guzti, helbide honetara: José María Arizmendiarieta pasealekua, 4, Arrasate 20500 (Gipuzkoa).